

# Aberri-egunaren aurrean

## HISTORIATXO BAT

### HIRU KAPITULUTAN

El Ayuntamiento de mi presidencia en sesión celebrada en el día de ayer, acordó reponerle en el cargo de Maquinista de la Central de Arzabal de esta localidad que venía Vd. desempeñando en este Municipio, pero sancionándole con la pena de OCHO MESES A MEDIO SUELDO del que disfrutaba, por haber sido simpatizante nacionalista hasta el principio del movimiento nacional salvador de nuestra Patria.

Lo que le participo a fines oportunos.

Viva España

Dios guarde a Vd. muchos años.

Deva 16 de enero de 1937

El Alcalde

Sr. Don Gumersindo Andonegui



Gumersindo Andonegi, Debatarra, es da aurten Aberri-eguna ospatzen izango. Lehengo abuztuan hil zen.

Adierabikoa da Aberri-eguneko ospakizuna, beste horrelako ospakizun politiko bezala. Batzuzentzat itxurak egiteko eta norberaren kontzientzia txarra lasaitzeko egun egokia da; areago: norberaren kontzientzia txarra lasaitzeko egun egokia da; areago: norberaren benetako pentsabidea eta jokabidea izkutatzeko eta interesak zaintzeko baliozkoa da Aberri-eguna. Horientzat Gora Euskadi-tik Viva España-ra pasatzea oihu bat aldatzea besterik ez, oihueguna besterik ez bait da Aberri-eguna. Beste batzuzentzat, berriz, beren barne-barneko pentsabidearen eta jokabidearen agergerri eta beren egunerokó lanaren eta ekintzaren euskarri da Aberri-eguna; areago: beren leialtasun ideologiko eta politikoaren adierazle bezala hartzen dute.

Historia txiki baten bidez azalduko ditugu bi jokabideok. Hiru kapitulutuan banatzen da.

#### 1. kapitulua: Sukarrietara eta Gernikara, ikurrin eta guzti

1921. Bazko-eguna zen. Debako hemeretzi gazte Sukarrietara abiatu

ziren, oinez. Aurrenik Arana-Goiren hilboia bisitatu zuten; eta handik Gernikara beren Aberri-eguna espartzera. Gernikako harizpean egin zuten argazkia, ikurrin, makila, dulzaina, danboril eta guzti.

Hemeretzi lagunen artean zeuden Gumersindo Andonegi eta geroago Debako alkatea izango zena ere. Argazkian biak ondoan daude, eskuintean: Gumersindo zutik, beste exerita. Gumersindok 27 urte zituen orduan.

#### 2. kapitulua: Langile eta alargun

1935. Alargun gelditu zen Gumersindo. Berrogei urte zituen orduan, zazpi seme-alaba, eta txikiena 3 egunerokoa.

Bizitza osoan bere lanetik bizi izan zen gizona: Europako lehen gerra garaian Frantzia, ikazkin; gero Debako untiolan; okin bezala ere bai; aguaziltzañ ere bai. Eta urte luzetan Debako udaletxeko enplegatua izan zen, bereziki Hartzabal-eko argindar-etxeko mekinista. Hementxe egiten zuen lana, Gerra zibila hasi zenean.

#### 3. kapitulua: Alkate berria, eta Viva España!

1937. Zazpi seme-alaba ditu Gu-

mersindok: zaharrenak hamasei urte; txikiak urte t'erdi. Eta Gipuzkoa etsaien eskuetan erortzen da; Deba ere bai. Eta hemen alkate berria ezarri eta zaharra hil egiten dute. Ikurrin eta guzti, Sukarrietara eta Gernikara joan zen Gumersindoren «lagun» hura da alkate berria.

Eta alkateak gutuntxo bat bidaltzen dio zazpi ume dituen Gumersindok alargunari, berekin hamasei urte lehenago Sukarrieta eta Gernikara «Aberri-egunez» joan zenari, «simpatizante nacionalista hasta el principio del movimiento nacional salvador de nuestra Patria» izan omen denari. Alkate berriak garaiz aldatua zuen nonbait bere oihua, eta Gora Euskarilren ordezkari Viva España! ikasia zuen.

Gernikako «Aberri-egun» hartatik hirurogeitabat urte geroago, Gumersindo Andonegi ezingo de aurten Aberri-eguneko ospakizunean egon.

Baina, lehenago abuztuan, hiletakoan, urte hartan Gernikan izandako beste lagun batek eraman zuen lorezko-koroa, Debako EAJk eskainia. Hemeretzi lagun haietatik hau bakarrik gelditzen da bizirik. Berau da, oraindik ere, lagun batzuren leialtasunaren eta beste batzuren desleialtasunaren testigu.

